SELLO
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
17/12/2024

# ERANSKINA
# OLENTZERO ETA JAIOTZEN LEHIAKETA 2024

**Plaza Zaharrean, abenduaren 24ean, 12:00etan**

## EPAIMAHAIA - IRIZPIDEAK

### OLENTZERO/JAIOTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK:

- Irudikatzen diren ekintzak errealismoa edo zentzua izatea.
- Erabiltzen diren materialak errealak eta ahalik eta naturalenak izatea (plastikoak edo mota horretako materialak ez erabiliz).
- Proportzioak: tamainari dagokionez proportzionaltasuna izatea.
- Keinuak eta gorputza ongi eginak egotea, errealismoa izatea.
- Abestietan ageri diren elementuak agertzea: pipa, zahatoa, zorroa…

### ABESTIA BALORATZEKO IRIZPIDEAK:

- Afinazioa: afinatua kantatzea.
- Erritmoa: egokia izatea.
- Errespetatu Lesakako ohiturazko abestiaren letrak eta melodia.
- Gehiago baloratuko da bi ahotsetara kantatzea.
- Talde moduan kantatzea, denak bolumen berdinean eta ahotsen bat bertzeen gainetik nabarmendu gabe.
- Postura egokia mantendu kantatzerakoan (denak epaimahaiari begira ...)

### JANZKERA BALORATZEKO IRIZPIDEAK::

- Baserritarren arropa janztea, tokilla edo bizkar larruarekin, mantalarekin, buruan zapia edo zapelarekin eta abarkak eta zapinak eramatea.

- Barreneko arropa ez ikustea (gomendioa, atorra laukiduna jarri azpian), belarritako ttikiak jartzea, pultserak, lepokoak, erlojuak… ez ikustea, ilea ongi bilduta eramatea (Lesakako moduak balio du), gonazpikoa ez ikustea, hau da, orokorrean arropa txukun eta ongi jarrita eramatea eta abarkak ongi lotuak eramatea, txukun jarrita.